

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2024/09/05ean EGINDAKO EZOHIKO
OSOKO BILKURA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL
PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día
05/09/2024.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Alaitz Orueta Arrese
Xabier Uriarte Iñurrategi
Irati Iglesias Pozo
Mikel Luengo Gabarain
Dorleta Sologaitoa Aguiriano
Maite Uribe Beristain
Antonio Regaño Sajeras
Josu Ezkurdia Santamaria

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2024ko irailaren 5ean, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra ezohiko bileran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Edorta Barandiaran García eta Puri Regidor Varela.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 5 de septiembre de 2024, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Edorta Barandiaran García y Puri Regidor Varela.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAAEPF06.3bAb>

2024/09/05
Ez Ohiko Osoko bilkura
Pleno Extraordinaria

1.- KONTRATU MISTOA EUROPAR BATASUNAK NEXT-GENERATIONEK FINANTZATUTAKO SUSPERTZE-, ERALDATZE- ETA ERRESILIENTZIA-PLANAREN ESPARRUAN: BATETIK, GEOTRUKA-SISTEMA BAT EZARRI ETA MANTENTZEKO OBRA PROIEKTUA IDAZTEKO ETA OBRA ZUZENTZEKO ETA EGIKARITZEKO (PRESTAZIO NAGUSIA) ETA, BESTETIK, MANUEL MUÑOZ UDAL KIROLDEGIKO ETA LUIS EZEIZA HERRI ESKOLAKO ERAIKINETAKO GALDARA-GELAK EGOKITZEKO, MARTXAN JARTZEKO ETA OPTIMIZATZEKO. Lizitazioa arautuko duten baldintza administratibo partikularren agiria eta baldintza teknikoaren agiria onartzea eta esleipen prozedura hasia.

Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Udalbatzarrak beharrezkotzat jotzen du administrazio-kontratu misto bat izapidetzea, batetik, geotruka-sistema bat ezarri eta mantentzeko, eta bestetik, ESKORIATZAKO MANUEL MUÑOZ UDAL KIROLDEGIKO eta LUIS EZEIZA ESKOLA PUBLIKOKO eraikinetako galdara-gelak egokitzeko, martxan jartzeko eta optimizatzeke. Kontratua honako hauek batera kontratatzeke da:

- Proiektua egitea.
- Obra egikaritzea (prestazio nagusia).
- Obra zuzendaritza.
- Segurtasun eta osasun koordinazioa.
- Mantentze-lanak.

Espedientea osatu da eta kontratuaren balio zenbatetsia eta espedienteko gainerako jarduketak ikusi dira, non behar bezala justifikatzen baitira aukeratutako prozedura, kontratua esleitzeko kontuan hartuko diren irizpideak eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 116. artikuluan aipatzen diren gainerako alderdiak.

Espedienteari gehitu zaizkio baldintza administratibo partikularren agiria eta baldintza teknikoaren agiria.

Kontratua urte honetan hasia aurreikusten da, eta 4 urte eta 10 hilabeteko iraupena izango du. Azken 4 urteak obra-harreraren, egiaztapenaren, bermearen eta mantentze-lanen faseari dagozkie.

Proiektua idazteari + obra-exekuzioari + obra-zuzendaritzari + segurtasun eta osasun-koordinazioari buruzko kontratuaren zatia finantzatzeko (965.580,00 €) kreditu nahikoa badago ere 2024ko aurrekontuaren kargura, urte anitzeko 58.080,00 euroko gastua onartu behar da 2026, 2027, 2028 eta 2029ko ekitaldietan obra-harreraren, egiaztapenaren, bermearen eta mantentze-lanen faseari buruzko kontratuaren zatia finantzatzeko.



Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 22. artikulua xedatzen du baimentzen diren ekitaldiaren ondorengo ekitaldietara hedatu beharreko gastuengatiko konpromisoak hartu ahal izango direla, baldin eta ekitaldian bertan edo hurrengoan gauzatzen hasten badira.

Kontuan hartu da, halaber, Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa.

Horiek horrela, eta Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarriaren batzorde informatzaileak egindako diktamena ikusita, Udalbatzarrak, aurrez eztabaidatuta, eta bertaraturako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Administrazio-kontratu mistoa kontratatzeke espedientea onartzea honako hauek egiteko: batetik, geotruke-sistema bat ezarri eta mantentzeko, eta bestetik, ESKORIATZAKO MANUEL MUÑOZ UDAL KIROLDEGIKO eta LUIS EZEIZA ESKOLA PUBLIKOKO eraikinetako galdara-gelak egokitzeko, martxan jartzeko eta optimizatzeko. Kontratuaren zenbatekoa 846.000 euro + BEZari dagozkion 177.660 euro da.

Bigarrena.- Indarrean dagoen udal aurrekontuko ondoren adieraziko diren aurrekontu aplikazioen kargura ondoren ere adieraziko diren zenbatekoak baimentzea. Zenbateko horiek kontratuaren zati honi dagozkie: proiektua idaztea + obra egikaritzea + obra zuzendaritza + segurtasun eta osasun koordinazioa.

BAIMENDUTAKO ZENBATEKOA	AURREKONTU-APLIKAZIOA
653.600,50 €	300.622.342.20.01
311.979,50 €	400.622.323.40.01

Hirugarrena.- Obren-harreraren, adierazleak egiaztatzearen, bermearen eta instalazioen mantentze-lanen faseari dagokion kontratuaren zatia finantzatzeko —2026an hasiko dela aurreikusten dena eta 4 urteko iraupena izango duena obrak amaitu ostean—, ondorengo gastuak BAIMENTZEA etorkizuneko aurrekontu ekitaldien kargura:

Gastua guztira: 58.080,00 euro

- 2026ko ekitaldia: 14.520 euro
- 2027ko ekitaldia: 14.520 euro
- 2028ko ekitaldia: 14.520 euro
- 2029ko ekitaldia: 14.520 euro

Laugarrena.- Lizitazioa arautuko duten baldintza administratibo partikularren agiria eta baldintza teknikoaren agiria onartzea, espedientean jasota dauden bezala.

Bosgarrena.- Kontratu hau prozedura ireki bidez esleitzeko prozedura hastea, eta dagokion iragarkia Udal honetako kontratatzailearen profilean argitaratzeko agintzea, hogeitasei eguneko epean egoki irizitako proposamenak aurkeztu daitezzen.

2024/09/05
Ez Ohiko Osoko bilkura
PlenoPleno Extraordinaria

BOZKETA AURRETIK ESANDAKOAK:

- Josu Ezkurdia, EAJ/PNVko bozeramailea: Dakizuenez, gai hau jorratu den guztietan guk aldeko botoa eman dugu. Orain ere aldeko botoa emango dugu, baina lehen bi gauza gogoratu nahi nituzke. Dakizuenez, proiektu hau lizitatzen den bigarren aldia da. Aurreko legegintzaldian guk atera genuen lizitaziora, baina esleipenean atzera egin zen, BILDUri handia iruditzen zitzaiolako proiektua. Txosten tekniko bat eskatu zuten, non ondorioztatzen zen proiektua handiegia zela eta ekonomikoki errentagarria ez. Guk, ordea, uste dugu orain egin nahi den proiektua motz gelditzen dela. Alde batetik, guk proposatzen genuen proiektuan, kiroldegiaz eta Luis Ezeizaz gain, eraikin gehiago sartzen ziren. Pena dela uste dugu, proiektu polit eta indartsu bat garatzeko aukera galdu dela uste dugulako. Hori ez ezik, denbora ere galdu da, urtebete galdu da, aurreko proiektua martxan jarri izan balitz, geotermia-sistema martxan egongo litzatekeelako edo martxan jartzeko moduan. Bi kontu horiek negatiboak dira, baina hala eta guztiz ere, uste dugu aurrerapausoa dela eta aldeko botoa eman behar dela. Lehen aipatu dut Udal honek txosten bat eskatu zuela aurreko lizitazioan esleipenean atzera zergatik egin zen justifikatzeko, eta txosten horretan arrazoi ekonomikoak baino ez ziren aipatzen. Guk uste dugu horrelako proiektuak ez direla ikuspuntu ekonomikitik bakarrik baloratu behar, iraunkortasunaren aldeko apustua direlako eta Errusiatik edo Arabiatik datorren gas-kontsumoa murrizten laguntzen dutelako; eta horrek ez du ikuspuntu ekonomiko bat bakarrik, ikuspuntu politiko eta sozial bat ere badu. Eta horrelako proiektuak ere oso garrantzitsuak dira klima-aldaketaren aurkako borrokan. Horregatik, uste dugu akatsa izan zela hasierako proiektua murriztea eta justifikazio bakarra ekonomikoa izatea. Hala eta guztiz ere, proiektua martxan jartzea txalotzen dugu eta aldeko botoa emango dugu.

2.- GALDE-ESKEAK.

- Josu Ezkurdia (berak esandakoa transkribatzen da):

Aurreko asteburuan, beste behin, Udala honetako langile baten kontrako pintada bat agertu zen. Ez da lehengo aldia, eta ez da ere lehenengo aldia Udalbatza honek salaketa adierazpen bat kaleratzen duena.

Horregatik, Alkateari galdera bat egin nahi diogu. Eta ondoren adierazpen bat zabaldu nahiko nuke.

Alkate, Udal honetako langileen buru bezala, galdetu nahi dizugu ia zer ekintzak martxan jartzea pentsatu duzun, begi bistan baitago adierazpen hutsek ez dutela bere helburua lortzen, hau da, mehatxuekin amaitzea.

Lehen esan dut adierazpen publiko bat egin nahi nuela, eta espero dut hartzailearengana iristea.

Udaleko langile baten aurkako pintada baten atzean ezkututzen den koldarrari aurpegia emateko esan nahi diot, baina ziur nago ez duela urrats hori emango. Ez da onargarria, inoiz ez da izan, edozein pertsona horrela beldurtzen saiatzea.

Horregatik, gure udal taldearen izenean, eta nire izenean, gure elkartasuna helarazi nahi diot María Pía Urrutiari, pertsona eta profesional handiari.

2024/09/05

Ez Ohiko Osoko bilkura
PlenoPleno Extraordinaria



- Alkateak erantzun dio eraso jasandako langileak berak salaketa jarri zuela Ertzaintzan joan den igandean, eta bera, alkate gisa, ertzain-etxearekin harremanetan jarri zela, ikerketa-lanak errazteko beharrezko laguntza guztia eskaintzeko. Esan du ikerketa horren jarraipena egiteko konpromisoa hartu zuela, eta bihar, ostirala, Ertzaintzari deituko diola gaia nola dagoen ikusteko. Behin eta berriz esan du Udala irekita dagoela ikerketa-lanetan laguntzeko, horiek edozein norabide hartuta ere; izan ere, ezin da jakin Ertzaintzak nola jokatu duen. Amaitzeko, adierazi du bere taldea apur bat galduta dagoela gai honen aurrean, prest dagoela edozertan laguntzeko, ez dagoelako ados gertatutakoarekin, eta gertakariak ere gaitzesten dituela.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:08ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- CONTRATO MIXTO DE REDACCIÓN DE PROYECTO, DIRECCIÓN Y EJECUCIÓN DE OBRA (PRESTACIÓN PRINCIPAL) PARA LA IMPLANTACIÓN Y MANTENIMIENTO DE UN SISTEMA DE GEOINTERCAMBIO, ASÍ COMO LA ADECUACIÓN NECESARIA DE LAS SALAS DE CALDERAS, SU PUESTA EN SERVICIO, OPTIMIZACIÓN EN LOS EDIFICIOS DEL POLIDEPORTIVO MUNICIPAL MANUEL MUÑOZ y ESCUELA PUBLICA LUIS ECEIZA DE ESKORIATZA EN EL MARCO DEL PLAN DE RECUPERACIÓN , TRANSFORMACIÓN Y RESILIENCIA FINANCIADO POR LA UNIÓN EUROPEA-NEXT GENERATION EU. Aprobación del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y de Prescripciones Técnicas que ha de regir la licitación y apertura del procedimiento de adjudicación.

Considerando que, a los efectos previstos en el artículo 28 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público , esta Corporación entiende necesario que se tramite un contrato administrativo mixto para la implantación y mantenimiento de un sistema de geointercambio, así como la adecuación necesaria de las salas de calderas, su puesta en servicio y optimización en los edificios del POLIDEPORTIVO MUNICIPAL MANUEL MUÑOZ y ESCUELA PUBLICA LUIS ECEIZA DE ESKORIATZA. Dicho contrato comprende la contratación conjunta de:

- Redacción de proyecto
- Ejecución de obra (prestación principal).
- Dirección de obras.
- Coordinación de seguridad y salud.
- Mantenimiento.

Completado el expediente y visto el valor estimado del contrato y las demás actuaciones del expediente, en el que se justifica adecuadamente la elección del procedimiento, los criterios que se tendrán en consideración para la adjudicación del contrato, así como el resto de aspectos a que se refiere el art. 116 de la Ley 9/2017, de 8 de Noviembre, de Contratos del Sector Público.

Visto que se han incorporado al expediente el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el Pliego de Prescripciones Técnicas .

Visto que se prevé el inicio del contrato en la presente anualidad, y que se ha establecido en 4 años y 10 meses el plazo de duración del mismo. Los últimos 4 años se corresponden con la fase de recepción, verificación, garantía y mantenimiento.

Resultando que, si bien se dispone de crédito suficiente con cargo al Presupuesto 2024 para financiar la parte del contrato relativa a la redacción del proyecto + ejecución de obra + dirección de obras + coordinación de seguridad y salud (965.580,00 €) , es necesario aprobar un gasto plurianual de 58.080,00 euros para financiar durante los ejercicios 2026, 2027, 2028 y 2029 la parte del contrato relativa a la fase de recepción, verificación, garantía y mantenimiento.

Considerando que el art. 22 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, dispone que podrán adquirirse compromisos por gastos que hayan de extenderse a ejercicios posteriores a aquel en que se autoricen, siempre que su ejecución se inicie en el propio ejercicio o en el siguiente.

Considerando también lo dispuesto en la Disposición Adicional Segunda de la de la Ley 9/2017, de 8 de Noviembre, de Contratos del Sector Público

Visto el dictamen de la Comisión Informativa de Territorio y Desarrollo Económico Sostenible; previo debate y con los votos a favor de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

Primero: Aprobar el expediente para la contratación del contrato administrativo mixto para la implantación y mantenimiento de un sistema de geointercambio, así como la adecuación necesaria de las salas de calderas, su puesta en servicio, optimización en los edificios del POLIDEPORTIVO MUNICIPAL MANUEL MUÑOZ y ESCUELA PUBLICA LUIS ECEIZA DE ESKORIATZA, por un importe total de 846.000 euros + 177.660 euros de IVA.

Segundo: Autorizar con cargo a las aplicaciones presupuestarias del vigente presupuesto municipal que a continuación se indicarán las cuantías que también a continuación se señalan, relativas todas ellas a la parte del contrato que consiste en la redacción del proyecto + ejecución de obra + dirección de obras + coordinación de seguridad y salud

CUANTIA AUTORIZADA	APLICACIÓN PRESUPUESTARIA
653.600,50 €	300.622.342.20. 01
311.979,50 €	400.622.323.40.01

Tercero: En aras a financiar la parte del contrato relativa a la “ Fase de recepción, verificación de indicadores, garantía y mantenimiento de las instalaciones” , cuya plazo de inicio no se prevé hasta 2026 y cuya duración ha sido establecido en 4 años una vez se hayan ejecutado las obras, AUTORIZAR los siguientes gastos con cargo a ejercicios presupuestarios futuros:

Total de gasto: 58.080,00 euros

- Ejercicio 2026: 14.520 euros
- Ejercicio 2027: 14.520 euros
- Ejercicio 2028: 14.520 euros
- Ejercicio 2029: 14.520 euros

Cuarto: Aprobar el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y de Prescripciones Técnicas que ha de regir la licitación, en los términos que constan en el expediente.

Quinto: Proceder a la apertura del procedimiento de adjudicación del presente contrato por procedimiento abierto, dando orden de que se proceda a la publicación del pertinente anuncio en el Perfil del contratante, para que en el plazo de veintiséis días se presenten las proposiciones que se estimen pertinentes.

INTERVENCIONES HABIDAS ANTES DE LA VOTACIÓN:

- Josu Ezkurdia, portavoz de EAJ/PNV: Como sabéis, siempre que se ha tratado este asunto nosotros hemos votado a favor. Ahora también votaremos a favor, pero antes quisiera recordar dos cosas. Como sabéis, es la segunda vez que se licita este proyecto. En la anterior legislatura nosotros sacamos a licitación, pero se desistió la adjudicación porque a BILDU le parecía grande el proyecto. Solicitó un informe técnico en el que se concluía que el proyecto era demasiado grande y no rentable económicamente. Nosotros, sin embargo, pensamos que el proyecto que se quiere desarrollar ahora queda corto. Por un lado, en el proyecto que nosotros planteábamos entraban más edificios además del polideportivo y Luis Ezeiza. Pensamos que es una pena porque consideramos que se ha perdido la oportunidad de desarrollar un proyecto bonito y potente. No sólo eso, sino que también se ha perdido tiempo, se ha perdido un año, porque si se hubiera puesto en marcha el proyecto anterior para ahora el sistema de geotermia estaría en marcha o para como ponerse en marcha. Estas dos cuestiones son negativas, pero aún así y todo creemos que es un avance y que hay que votar a favor. Antes he mencionado que este Ayuntamiento pidió un informe para justificar el porqué se desistía de la adjudicación en la anterior licitación, y en ese informe sólo se aludían razones económicas. Nosotros creemos que este tipo de proyectos no hay que valorarlos sólo desde el punto de vista económico porque son un apuesta por la sostenibilidad, y porque facilitan reducir el consumo de gas que viene de Rusia o Arabia; y ello no solo tiene un punto de vista económico sino que también político y social. Y también este tipo de proyectos son muy importantes en la lucha contra el cambio climático. Por eso creemos que fue un error reducir el proyecto inicial y que la única justificación fuese la económica. Así y todos aplaudimos que el proyecto se ponga en marcha y votaremos a favor.

2.- RUEGOS Y PREGUNTAS

- Josu Ezkurdia (se transcribe su intervención) :

Aurreko asteburuan beste behin Udala honen langile baten kontrako pintada bat agertu zen. Ez da lehengo aldía, eta ez da ere lehenengo aldía Udal Batza honek salaketa adierazpen bat kaleratzen duena.

Horregatik, alkateari galdera bat luzatu nahi diogu. Eta ondoren adierazpen bat zabaldu nahiko nuke.

Alkatea, Udal honen langileen buru bezala, galdetu nahi dizugu ia zer ekintzak martxan jartzea pentsatu duzun, begi bistan bait dago adierazpen hutsek ez dute bere helburua lortzen, hau da, mehatxuekin amaitzea.

Antes he dicho que quería hacer una declaración pública, y espero que llegue a su destinatario.

2024/09/05

Ez Ohiko Osoko bilkura
PlenoPleno Extraordinaria



Le quiero decir al cobarde ese que se esconde tras una pintada contra una trabajadora del Ayuntamiento que dé la cara, aunque estoy convencido de que no dará ese paso. No es admisible, nunca lo ha sido, el intentar amedrentar a cualquier persona de esta manera. Por eso, en nombre de nuestro grupo municipal y en el mío personalmente, quiero transmitir nuestra solidaridad a María Pía Urrutia, una gran persona y una gran profesional.

- El Alcalde le responde que la propia trabajadora afectada interpuso una denuncia ante la Ertzantza el pasado domingo y que él, en su calidad de alcalde, se puso en contacto con la comisaría ofreciendo toda la ayuda necesaria para facilitar las labores de investigación. Dice que adquirió el compromiso de hacer un seguimiento a dicha investigación y que mañana, viernes, llamará a la Ertzantza para ver cómo está el asunto. Insiste en que el Ayuntamiento está abierto para colaborar en lo que sea en los trabajos de investigación, con independencia de la dirección que estos cojan, dado que, dice, no se sabe cómo actuará la Ertzantza. Termina su intervención manifestando que su grupo está un poco perdido ante este asunto, que está dispuesto a ayudar en lo que sea porque no está de acuerdo con lo ocurrido y que también condena los hechos.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:08 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.